
LAGUNTZAILLE ELEIZAN ETA ERRIAN (MANTEROLA'TAR GABIREL)

(MEZAKO ITZALDIA)

BERBEAREN OSPAKIZUNA

Une aundietan Kristiñauok eleizan batzen garanean, Jaungoikoaren berbea entzutea izaten da lenengoetariko eginkizuna.

Orrelan izan zan 1990'ko epaillaren 17'an, Gabirel Manterola jaio zanetik eungarren urtean Zea-nuri'n eta Euskerazaintza ta Euskerazaleak eratzaille zirala egin genduan Eukaristian.

Irakurgai bi aukeratu genduzan. Lenengoa Agerpena deritxon liburutik, beste munduan Jaungoikoaren aurrean erri, enda eta izkuntza guztietakoak aurkitzen dirala diñoskun zatia eta bigarrena, Jesus'ek, azkenengo aparian apostoluen oiñak garbitu ondoren, bera serbitzera etorri zala eta alkarren zerbitzaille edo laguntzaille izan bear dogula eskatzen daukun zatia.

Biblia'ren zati bi orreik azaltzeko izan zan itzaldia, azaltzeko eta egiten genduan ospakizunera ekarteko. Ez zan mezearen elburua Gabirel goratzea, beiñago beragaz gogoz alkartuta bere alde eskatzea. Dana dala, Bibliaren eta berbaldiaren aria jarraitu ezker, errez ulertzen da, Gabirel eleizaren eta erriaren laguntzaille izan zala eta bere antzekoak izan bear dogula orretan.

ZERTAN LAGUNTZAILLE?

Lenengo ta bein, Jesus'en Barri Ona, berbaz eta egitez, euskal jakintzaren mundura sartzean. Gero euskaldun kristiñauak euren eleiz-batzarretan egokiro janaritzean. Gaiñera errian bear izan berezi batzuk sortzen diranean, laguntza bereziak emon bear izaten dira eta orretarako norberaren burua eskintzea gauza txalogarria da. (Orrelan egin eban gure Gabirel'ek Inglaterra'ra erbesteratuta joan ziran umeai laguntzeko gertu agertu zanean).

Eleiz-barruko giroan fededunai begiratzea eta



Omenaldiko mezea: Aurreko bateo-arri orrelan izan zan bateatua, orain 100 urte D. Gabirel.

eurak Jesus ezagutzen eta maitatzen aurrera egin dagien alegintzea, artzain onaren giroan onartzeko zeregiña da, esaterako umeen katekesian lan egiten danean. Egia esan, gaur ardura aundiaz artzen da nagusien katekesia eta guztiok daukagu orretan taldeetan alkartu eta Barri Ona sakontzeko eginbearra, baiña, aldian aldiko gauzak, Gabirel'ek katekesi-lana ugari egin eban. Ez bear ba'da gaurko aurrerapenakaz, bai orduan aurrerapen aundia ziran bideak artuta.

IDAZLE-LANA

Baiña, eleizgiroan naiz erri-giroan, bear-bearrekoa zan aldi aretan Gabirel'en lan berezia, liburuetan eta aldizkarietan idaztea.

Idazle ugaria izan genduan Gabirel, geienetan eleiz--giroko lanetan, baiña erri-girokoetan be bai. Geroko itzaldietan agertuko da lan aundi ta eder au.

OLAZAR'tar MARTIN'ek